

BERRIGARA

33. zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1996, maiatzak 3

**Irukurutzetako
erromeria:
Ohitura zaharrak
berreskuratuz**

Jesus Mari Lazkano
Egun guztia pinturaz inguratuta

ION AUTOAK

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27



Zatoz eta ezagutu ezazu gertutik

CITROËN SAXO berria.

MERKATURATZE ESKAINTZA BEREZIA!!



CITROËN



Tartufo Jatetxea

Crain arte Tartufo diskoteka izan denaren zuzendaritzak, bere 25. urteurrenean, diskoteka jatetxe bihurtu duela, eta aurrerantzean T.A.R.P.U.C. J.A.T.E.X.E.A izango dela adierazi nahi die bere bezeroei.

Gure espezialitateak: brasan erretako arrain eta okelak, eguneko menua eta karta.

Jaialdi bereziak antolatuzeko aukera.

Bergararrak eta inguruko guztiak gonbidatu nahi ditugu gure instalazio berriak ikustera.

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROSZTEGIA

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxa: 76 54 91



Leiho
termoakustikoak
Horma armairuak
Ateak
Altzariak



ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
B 76 03 97 • Faxes: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Agel Elkoroberebizar
Irene Larrañaga

Haketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Argipidetzak:

Sorka Elortza

Bestuen zuzenketak:

Isteban Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Sorka Elortza
Agel Angel Elkoroberebizar
Alex Labaien

Colaboratzailea:

Maria Gomez

Comikiak:

Uttor Rodriguez
Sorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde

lanaketa:

Antxangorri taldea

Irada:

1000 ale.

primategia:

Bentu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

lege gordailua:

S 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako lanen eta iritzien erantzunkizunik.

Z E B E R R I D A ?


JUAN MARI LAKUNZA Deba Garaiko DYAk kidea

- Astebukaeran Deba Garaiko DYAk urteroko kuestazioa egingo du. Zenbateko aurrekontua duzue?

- Aurten 1.575.000 pezeta aurrekontua daukagu eta kuestazioaren helburua aurrekontuari aurre egin ahal izateko dirua batzea izango da.

- Eta kuestazioarekin zenbat diru jasotzen duzue?

- Ba aurreko urteetan aurrekontua bete ahal izan dugu kuestazioetan batutakoarekin. Kontutan izan Deba Garaian herri dexente dagoela eta karreteran jasotakoa eta ikastetxeetan jarritako itsulapikoekin normalean gure helburua lortzen dugu. Ea aurten errepikatzen den... Dena den, alde aurretik guz-



tion laguntza eta interesa eskertu nahi genuke.

- Zenbat lagun ari zarete Deba Garaiko DYAn?

- Momentuan 22. Batez ere astebukaeretan egiten dugu lan, istripuetan, kirol ekitaldietan... Hala ere, ikastaroetara jende asko etortzen da baina gehienek ez dute gero DYAn sartzeko urratsa ematen.

"Astebukaerako diru bilketarekin gure aurrekontua betetzeko asmoa daukagu"

I T U R R I O N E T I K

Banco Popularrek bulegoa irekiko du Ibargarai kalean

Banco Popularrek Ibargarai kaleko 26. zenbakian bulegoa irekiko du datozen hiletan. Udalaren beharrezko baimena jaso ondoren, dagoeneko lokala egokitzeko lanetan dira eta hemendik hiru bat hilabetera lanak amaituta egotea espero da. Beraz, ziurrenik, irail aldera zabalduko da Banco Popularrek gure herrian izango duen lehendabiziko bulegoa. Gogoratu, bestalde, La Caixak ere bulegoa irekiko duela Barrenkalen, Arreseko etxabearen, Ayastuy jantxidendak aspaldi betezen zuen lokalean. La Caixako bulegoa berehala zabaltzea espero da, lanak amaitzear daude eta.

E S A N D U T E

"[Jose Lusi Aranguren kartal] Ez nago zure ikasle eta adiskideen artean, eta gure arteko tratua, dagoeneko existitzen ez den Asociacion Española de Mujeres Universitarias-izor diot; sasoi gogorretan beti izan zinen elkarte horren adiskide eta laguntzaile on. (...) Zure jakitea eta hausnarketak argi eta samur gureganatu zenizkigun, arin baina tinko (zure ahots atsegina eta bakarra entzuten ari naizela ematen du), eta independente izaten eta gure zentzu kritikoa erabiltzen erakutsi zenigun. (...) Zure oroimenak beti lagunduko digula adierazi diezazuket, izan ere, egiaren bila gure aurretik, apal-apal, zindoazen sentsazio garbi eta gozagarria zabaldu baitzenigun. Bidaia on bat opa dizut"

PILAR MUÑO
Bergararra
EL PAIS



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du



ACE VENTURA OPERACION AFRICA


Ostirala: 22:30.

Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.
Igandea: 17:00, 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



CARRINGTON

Osteguna: 20:00 (Zine-kluba).



Zinea

▼▼ Aspaldi honetan lortutako arrakastari esker, **Jim Carrey** (*La mascara, Dos tontos muy tontos*) gaur egungo aktore kotizatuenetarikoa dugu. Steve Oedekerkek idatzi eta zuzendutako komedia honetan, **Ace Ventura (Carrey)** detektibeak Himalaiatik Afrikara joango da. Animalia sakratu bat desagartu ondoren, **Ace Venturari** animalia topatzeko agindua emango diote. Ez da lan makala izango...

▼▼ Munduko lehen gerrateko urteetan Ingalaterran girotuta, **Christopher Hampton** zuzendariaren filme honetan **Lytton Strachey** idazlea (**Jonathan Pryce**) eta **Dora Carrington** pintorearen (**Emma Thompson**) arteko erlazioa azaltzen zaigu. **Michael Nymanen** (*El piano*) musikarekin.

▼▼ **Aitor Alzelai** pasa den astean hil zen gaztearen omenezko ekitaldiak antolatu ditu **Gazte Asanbladak**. Gaur ostirala 22:30etan "*Historias del Kronen*" filmea Zabalotegin. Bihar, berriz, 16:00etan malabar tailerra Plazan eta 20:00etan manifestazioa "*Mila etxe buts eta gazteak kalean*" lemapean. Igandean, 15:30etan, futbolin txapelketa Plazan.

Deiak

▼ **1963an** jaiotakoen bazkaria maiatzaren 11n Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea: Ariznoa, Kortazar eta Urratsen.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, maiatzak 8, 18:30etan.

▼ **Hitzaldia.** Komite Internazionalistak taldearen eskutik, Carlos Taivo katedradunak Bosniari buruzko hitzaldia emango du asteartean 7:30etan Kultur Etxean.

▼ **Hitzaldia.** "Tabakoa eta osasuna" astelehenean 16:30etan Jubilatuetan.

▼ **Udalerri** Euskaldunen Eguna igandean, maiatzak 5, Aramaion. Ekitaldiak goizeko 11:30etan hasiko dira. Arratsaldean pailazoak eta erromeria Maixa eta Itziazarrein.

Ogia

▼ **Igandea 5:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 3:** Camacho.
- ▼ **Larunbata 4:** Puy.
- ▼ **Igandea 5:** Puy.
- ▼ **Astelehena 6:** Guallar.
- ▼ **Asteartea 7:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 8:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 9:** Camacho.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Irukurutzetako erromeria

Ohitura zaharra berreskuratu nahi du Kapirixok

Igandean, Soraluzeko Aiton-Txaboletako elkarreak eta Kapirixok antolatuta, Irukurutzetako erromeria izango da. Goizeko 9etan Osintxuko zubian hasiko da ibilaldia, 11:30etan Pago Bedeinkatuan salda beroa banatu eta meza izango da; 12:30etan Iosu eta Jokinek alaitutako bazkalurreko erromeria; ordu batean Irukurutzetan plaka jarriko da eta 14:30etan bazkaria (norberak eraman behar du). Arratsaldeko 4 terdietarako berriz ere erromeria iragarrita dago eta azkenik, 6etan, Elosura jeitsiera eta azken agurra bertsolari eta trikitalariek.

Kapirixok aspaldiko ohitura hau berreskuratu nahi izan du. Anaje Narbaiza Kapirixoko kideak azaldu digunez, "orain 80 bat urte egin zen azkenengoz eta erromeria hori berreskuratzea asmo polita zela pentsatu genuen. Lehen maiatzaren 1ean izaten zen. Salda bartzeko obitura zegoen eta meza egoten zen Pago Bedeinkatuan. Berau, Irukurutzetatik 20 bat minutura dago, oso toki polita da baina ezezaguna aldi berean. Badirudi



Irukurutzeta inguruko trikuharriak gertutik ikusteko aukera ederra izango da igandeko erromerian.

jendeak ilusioz hartu duela erromeria egiteko ideia: Jokin eta Iosu parte bartzeko prest azaldu dira, Mansori esker ardoa izango da, Udalak 50 mila pzta. ko laguntza eman du... Orain eguraldi ona izatea besterik ez da falta". Kapirixok etorkizunean maiatzaren lehendabiziko domekan erromeria antolatzeko asmoa dauka. "Bi arrazoi nagusi izan dira. Alde batetik, obitura hori berreskuratzea eta bestetik, mendi tontor hori elkar-gune bihurtzea. Igande-

an Azkoiti, Elgoibar, Soraluze edo Bergarako jendea etortzeko itxaropena daukagu. Lau bat hilabete daramatzagu inguru horretako trikuharriak garbitzen eta Azpeititik, esate baterako, jende asko etortzen da inguru horretara" esan digu Anajek.

Trikuharriak

Abenduan amaituko dira trikuharriak garbitzeko lanak. Bergarako lurretan dauden 7 trikuharriak dagoeneko garbituta

daude eta orain Soraluzen dauden beste 7, eta Azkoitin eta Antzuolan daudenekin (bana) hasiko dira lanean Kapirixokoak. Azken hilabeteotan domekero izan dira dozena bat lagun bertan lanean. Horrez aparte, ondoren jarriko diren panelek 2 milioi pezetako aurrekontua daukate. Era berean, egindako lanaren inguruko bideo bat grabatzeko asmoa du Kapirixok. Gaur egun 130 bazkide dira Deba Garaiko ondare kulturala berreskuratzeko helburua duen elkartearen.

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.

Karta (2.000-3.500 pzta. artean).
Okela eta arraina parilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadiloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35



gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

PNV-EA entzun: Dispertsiorik ez!

Harrituta nago, egun hauetan, gure politiko "democrata" k direnen eskutik gertatzen ari diren gauzak direla eta. Alde batetik esan, azken hauteskundeetan Arzallusek preso politikoaren senideak iraindu egin zituela esanez engainatuta gaudela ETA erakundearen aldetik, erakunde hau lehena delako presoak gartzelatik atera nahi ez dituen.

Honez gain esan, presoek beraiek erabakia dutela zuen txantailan jausi gabe, gartzelan borrokan kontsekuente segitzea. Erabaki hau presoak berak hartzen du eta ez inork gehiago, inoren agindurik gabe.

Bestalde esan, lotsagarria dela Bergarako Udaletxeak hartutako erabakia Senideekin mozioa tratatzerakoan. Esan, guk senideok presoak Euskal Herriratu eta bertan biltzea eskatzen genuela eta PNV eta EAK mozio alternatibo bat aurkeztu zuten, "presoak-euskalerriratu eta bertan biltzea" izan beharrean "Euskal Herrira hurbiltzea" eskatzen.

Eta zuek demokratik al zerate?, "hurbiltze" hitz honek ez al dizue lotsarik ematen? Cadizetik Madrilera presoak ekarri zuten kontzientzia garbi al daukazu?, zergatik ez Cadizetik Langraitzera? Gainera gure alkateak senide bati zera esan zion, Senideekin ezin dela ezertaz hitzegin ez genuelako ezer ulertzen, eurok bakarrik puntutxo bat aldatu zutela mozioan eta. Ba jaun andreok, puntutxo hori gure bizitza guztia da. Zuen erabaki horrekin milaka familia hondatzen ari zarete, adibide bat nire familia da zuen dispertsio politikoarekin urtean milioi bat baino gehia-

goko gastua pairatu behar dugulako.

Eta hondamena ez da ekonomikoa soilik, dispertsio politika honekin familiar asko hiltzen ari zarete, astero 1.500 Km. baino gehiagoko bidaiak egitera behartzen gaituzue, 20 minututako bisita bat edukitzeko (eta ez naiz sartuko bidaia guzti hau egin ondoren 5 minututako bisita dugula esaten digutenean, zuzendariari ipurtzuloan jarri zaiolako). Gaineratu, dagoeneko istripu larriak egon direla (Bergarako senide batzuen barne) eta hildakoak ere hor daude.

Dispertsioa legez kanpo dagoela jakinda ere, nortzuk zarete zuek guri hau dena inposatzeko? zer uste duzu, eskubide guztia daukazuela senide batzuk iraintzeko (Sabin Etxearen aurrean gertatu zen bezala) guk bakarrik presoak Euskal Herriratu eta bertan biltzea eskatzen dugunean? Zehaztu, zuek zaretela lehenengoak presoak gartzelan ikusi nahi dituzuenak dispertsioaren alde egonaz, kondenaen 3/4ak beteta dauzkaten presoak gartzelan mantenduz eta 60. artikulua (gaisotasun sendaezinak) aplikatu behar zaien presoei ez aplikatzearen.

Bukatzeok esan, Bergaran 4 preso dardela etxean egon beharko luketenak euren kondenaen 3/4ak beteta daukatelako eta oraindik gartzelan segitzen dute bahiturik eta guk senideok gure bizitzak arriskuan jartzen segitzen dugu gure alkate Victorianori, PNVko zinegotziei eta baita EAri esker.

Salatu dispertsioa!!

Euskal presoak Euskal Herrira!!

G. I. (PRESO BATEN ARREBA)

NAN: 15.378.668

Eskerrik asko

Joan den apirilaren 20an Bergaran jokatzen Donostia-97 klasikan, gazte mailako txirrindulari lasterketan, lagundu zuten guztioi mila esker; bereziki hauei guztiei: Elgetako Txirrindulari Elkarte, Arrasateko Txirrindulari Elkarte, Telleriarteko Txirrindulari Elkarte, Miguel Altuna Institutua, Bergarako Udala, Udaltzaingoa, Ariznoa hotela, Pertxa Elkarte, Artatse Elkarte, Oñati Karabanek, Gruas Ibai, Ninika Ioradenda, Sumofic, Talleres Ola-Opel, Rotulos Zabaleta, Aranzadi Ikastola, Bolintxo Okindegia, I. Astiazaran sendagilea, Euskadiko Kutxa, Kutxa, motordunak, Aita Zamora eta DYA.

LOKATZA TXIRRINDULARI ELKARTEA


Nesken futbito

Azken hilabete hauetan burutu den Emakumezkoen I. Futbito Txapelketa bide onetik joan zedin lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eskutitz honen bitartez.

Eskerrak bereziki guzti hauei: Akort, Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Central-Hispano, Eroski, Banco de Vitoria, Banco de Santander, Bergarako Udala eta txapelketako kolaboratzaile izan direnei.

LAGUNAK ARETO FUTBOLA

Tiira biraka



AEKren ikastaroa

Bergarako AEKk glotodidaktika ikastaroa antolatu du uztailaren 1etik 18ra bitartean. Argibideak 76 05 18 telefonoan.

Institutuen deia

Miguel Altuna eta Ipintza institutuek dei egiten diete 8. mailako ikasleen gurasoei asteazkenean, maiatzak 8, 7etan Ipintza Institutuan egingo den bilerara joateko. Bertan hezkuntza eskaintza azalduko zaie.

Aranzabal Lagunartea

Aranzabal Lagunartek bilera egingo du larunbatean ordu batean Kultur Etxean.



Aurtengo txekorketaren aurkezpena maiatzaren 11n egingo da Pikupe elkartearen.

Rekondo torero donostiarra omenduko du Zezenzaleak taldeak

Bergarako Zezenzaleak taldeak Jose Mari Rekondo torero donostiarra omenduko du aurtengo Pazkuetako txekorketaren aurkezpenean, maiatzaren 11n, eguerdiko 12etan Pikupe elkartearen.

Igeldon jaioa, Jose Mari Rekondo Gipuzkoak eman duen azken toreroa da eta bere lehen zezenketa Bergaran izan zuen, 1948ko maiatzaren 17an. Pikupe elkarteak antolatu zuen txekorketa hura eta Valentin Movilla zena izan zen promotorea. Bi belarri eta buztana lortu omen zituen arratsalde hartan Rekondok. Handik urte batzuetara, 1955ean,

alternatiba hartu zuen Zaragozako zezenplazan, Antonio Bienvenidak eta Chicuelo II.ak kartela osatzen zutelarik. Oraindik ere Rekondok zezen munduan egiten du lan enpresario modura eta gaur egun Torremolinosen bizi da.

Oso hizlari trebea da Rekondo, izan ere bertozale amorratua baita. Orain urte batzuk Diputazioak antolatutako beste hitzaldi bat eman zuen Donostian.

Aurtengo kartelari dagokionez, Millan aragoarrak eta "Paulita" napparak Lopez-Chaves ganadutegiko txekorrak torea-

tuko dituzte maiatzaren 26ko txekorketan. "Paulita" k eta Millanek denboraldi bikaina egin omen zuten iaz. Sobresalientea, berriz, Vicente Ruiz napparra izango da.

Iaz bezala txekorketako kartela Abdon Juaristi margolariak egin du eta txekorketaen aurkezpenean erakutsiko da Pikupen. Bertan, txekorketan parte hartuko duten toreatzaileak ere izango dira.

Bukatzeko, esan dezagun, Bergarako 50 zezenzale inguruk hartu zutela parte apirilaren 20an Santamaria ganadutegia bisitatzeko Biasterira egindako irteeran.

HILDAKOAK

Aitor Alzelai Juaristi

Apirilak 25, 25 urte

Martin Albisua Larrea

Apirilak 25

Julian Rufz Bernete

Apirilak 26, 66 urte

Maria Arregi Ereño

Apirilak 29, 95 urte

Manuel Orbea Arrizabalaga

Apirilak 29, 88 urte

JAIOTAKOAK

Garazi Agirrezabal Iturbe

Apirilak 26

Ane Sancho Arakistain

Apirilak 27

Jon Macias Umerez

Apirilak 28

Paul Azkargorta Juaristi

Apirilak 30

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz, 4 EIBAR

☎ 76 63 42 ARRASATE

Gobernu Batzordeak indar barik laga du Plenoko erabaki bat

Udal Gobernu Batzordeak, EAJ eta PSE-EEren aldeko eta EAren kontrako botoekin, apirilaren 10eko Plenoan onartutako **BOTA anti-militarista taldearen mozioa indarrean ez jarzea erabaki du.**

Gobernu Batzordeak apirilaren 15ean egindako bilerako aktan jasozten denez, "Erreklutamentuarekin lotuta Udalari izendatzen dizkioten eginkizunak baino ez dira beteko, hau da, alista-mendu eta sailkapenari buruz espreski izendatutako eginkizunak eta jakinarazpenak egin eta eskatutako informazioa ematea". Gogoratuko duzue, soldaduzka edo ordezkoko zerbitzu soziala egiteari uko egin diotenei Kode Penal berriak ezarri nahi dizkien inhabilitazioak ez onartzea eta espainiar ejerzitoari inolako laguntzarik ez ematea eskatzen zuten BOTAREN mozioa, HB eta EAren botoekin onartu zen apirilaren 10ean. EAJ kontra azaldu zen eta PSE-EEko zinegotzia ez zen Pleno hartan izan.

Apirilaren 22ko Plenoan, bestalde, hainbat udal



Intsumisioari buruz Plenoan erabakia legearen kontrako zela eta, indarrean ez jarzea erabaki zuen Udal gobernuak.

eraikuntza gasoleoz hornitzeko kontratazioaren baldintza pleguetan, inhabilitazio administratiboa dutenek aurkezteko aukerarik ez dutela jasozten zela esan zuen Mikel Eguren HBko zinegotziak. Egurenen hitzetan "baldintza horiek eta aurretik onartutako BOTAREN mozioak kontraesana suposatzen dute". Victoriano Gallastegi alkateak esan zion Udalak ejerzitoarekin dituen betebeharrak erantzun behar zaiela, legeak horrela esaten duelako. "Legea eskuan, aurretik onartuta-

koa ilegala zen". Azkenean baldintza pleguak onartu egin ziren EAJ eta PSE-EEren botoekin. HB kontra azaldu zen eta EA abstenitu egin zen botazioan. HBko zinegotziek EAJ eta EAren jarrera salatu zuten.

BOTA antimilitarista taldeak ere bere haserrea azaldu du komunikabidei bidalitako idatzi batean. BOTAK EAJ eta EA kritikatzeko ditu: "EAJk Gobernu Batzordean hartutako erabakiak zailantzan jartzen du alderdi horrek intsumisioaren aurrean duen jarre-

ra eta bere zinegotzien ideologia politikoa". BOTAK alkatearen jarrera salatzen du: "Demokrazian buruz duen interpretazio eskasa dela eta, Plenoan hartutako erabakiak bakarrik bere aldekoak direnean baliogarriak direla uste du".

EAren jarrerari buruz azkenik, zera diote BOTAK taldeko antimilitaristek: "Isilune konplizea eta intsumisioarekiko ambiguitate politikoa erakusten du. Ez dago jakiterik lehenengo keinua militarren kontrako ala aldekoak izan".



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamisetetan, sudadera edota nikietan inprimizten ditugu.



zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiatu koloretan. Futbol, saskibalo edota zirkismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, garrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Angiozarrera joateko bidean dagoen errotonda konponduko da

Angiozarko Frontoia berrizteko proiektua martxan

Iaz Angiozarrera joateko bidean egin zen errotonda hobetzeko lanak egingo dira hemendik lasterra. Errotonda iazko martxoan egin zen eta zeresan ugari eman zuen. Angiozar Bailarako Batzarrak eta Azkarruntz auzokoek protesta egin zuten firma bilketa baten bitartez. Euren esanetan, obren ondoren, Angiozarrera bidea hartzeko bidegurutzea ez zen uste bezain ondo geratu. Guztira 150 firma inguru bildu eta Diputaziora bidali zituzten. Angiozarko Bailarako Batzarrak errotondaren konponketa eskatzen zuten.

Udaleko ordezkariak Diputazio-koekin berbetan izan dira eta dirudenez proiektua eginda dago dagoeneko. Angiozarretik Labegaraie-

tara bidean geratzen den ezkerreko partea zabaldu egingo da bisibilitatea hobetu ahal izateko. Aurrekoan bezala, Diputazioak egin eta ordainduko ditu zuzentze lanak.

Era berean, Angiozarko pilotalekua estali eta egokitzeko proiektua egiteko lehiaketa arautuko duen baldintza plegua onartu zuen apirilaren 15ean Gobernu Batzordeak. Proiektuak 50 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango du eta frontoia estaltzeaz gain aldagelak jarri eta beste hainbat hobekuntza egingo dira, Angiozarko frontoian.

Lanak noiz hasiko diren ez dakigu baina baliteke proiektua adjudikatu ondoren, lanak aurtien hasia. Angiozarko frontoia 1981 urtean egin zen.



Langileen protesta

Larunbatean, Narvaizako langileek protesta egin zuten San Martin plazan. 200 bat langilek, euren lanpostuei eusteko inbertsioak egitea eskatu zieten ugazabei.

Mendi irteera

Atxarte-Atxiki-Alluitz mendi irteera antolatu du, 14 urtetik gorakoentzat, maiatzaren 12rako Pol-Pol Mendizale Taldeak. Informazio gehiago Pol-Polen.

Herri Urratsera autobusa

Aranzadi Ikastolak eta Jardunek maiatzaren 12an Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute. Izen-ematea (1.200 pezeta) osteguna baino lehen.

Kontzertuak monjetan

Usurbilgo Txistulari Taldearen eta Zumarteko Akordeoi Orkestaren kontzertua izango da gaur 19:30etan Mariaren Lagundiko elizan. Bihar larunbata, 19:00etan, Zumarte abesbatzak eta Musika Eskolako Haurren abesbatzak emanaldia eskainiko dute.

Xipizaro ludoteka

Udaleku irekietarako izen-ematea maiatzaren 24ra arte zabalik izango da, 16:30etatik 19:30etara. Larunbatetan, 10etatik ordu batera. Argibideak 76 23 76 telefonoan.



Angiozarrera joateko bidean dagoen errotonda iazko martxoan egin zuen Diputazioak.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

MUJIK

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 **BERGARA**

Rodolfo Izal

Apaiza

Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, Rodolfo Izal (36 urte) apaiz nafarrak Chiapasi buruzko hitzaldia eman zuen ostegunean UNED-en. Izalek 5 urte eman ditu Chiapasen, uztailean Gobernu mexikarrak kanporatu egin zuen arte.

- Zergatik joan zinen Chiapasera?

- Nire historia pertsonalarekin zerikusia duten arrazoi ezberdinengatik. Aurretik El Salvadorren egon nintzen eta indigenekin lanean jarraitu nahi nuen. San Cristobalگو elizbarrutiko lana ezagutzen nuen eta hara joateko aukera sortu zitzaidan. Bost urte egin ditut Sabanillako parrokian, Chiapas estatuko iparraldean, chol indigenekin.

- Zergatik kanporatu zintuzten Mexikotik?

- Agintariak kritikatzegatik hiru apaiz kanporatu gintuzten eta ez gara bakarrak izan. Beste apaiz mexikar batzuk ere gartzelan izan dira eta ia denok jasan ditugu mehatxuak, atentatuak eta horrelako gauzak. Elizbarrutiak bizitzaren aldeko apostua egin du, pobreen bizitzaren aldeko apostua. Horrek heriotzaren kontrako apostua egitea suposatzen du, heriotzaren produktoreen eta heriotza mekanismoen kontra joatea, azken finean Gobernu mexikarraren kontra azaltzea.

- Eta Gobernuaren zuzenbidea...

- Horrek, logikoa denez, gure pertsekuzioa ekarri du. Guk asumitu egiten dugu hori baina horrek ez du esan nahi horren kontra errebeltatzen ez garenik, pertsekuzio injustoa iruditzen zai-



"Gobernuaren aldatzen denean itzuliko naiz Chiapasera".

gu eta. Dena den, 1980. urtean San Salvadorren hil zuten San Romero de America artzapezpikuak esaten zuen moduan, normala da herriak errepresioa sufritzen badu elizak ere sufritzea. Horrela izango ez balitz eliza ez litzateke herriarekin bat eginda egongo.

- Chiapasera bueltatzeko asmorik badaukazu?

- Joan nahi dut baina ez didate uzten. Etorkizuneari, gobernuaren eta esturkturaren aldatzen direnaren itzuli ahal izango naiz. PRI alderdiak 70 urte daramatza gobernuan eta esaerak dioenez, 100 urte irauten duen gaitzik ez dago. Beraz 30 urte besterik ez zaie geratzen. Eta nik badaukat itzaropena

beste 30 urte gutxienez bizitzeko. Baina, nagusiki, gobernuaren jarrera, herri indigenak gobernatzeko modua, aldatu egin behar da.


- Nola esplikatu zenuke, labur labur, Chiapaseko arazoa?

- Hiru klabe daude. Ekonomikoa batetik, iparraldearen eta hegoaldearen arteko diferentziak. Bestetik politikoa, PRIren kontrol absolutoa eta azkenik, klabe ideologikoa, kultura dominantearen inposizioa. Hiru klabe hauek Chiapaseko arazoa azaltzen dira, eta ez bakarrik Chiapasekoak. Mexiko, Latinamerika eta hegoalde osoarenak berriz. Biztanlegoaren %60ak errealtate horren ondorioak jasaten ditu.

"San Cristobalگو elizbarrutiak bizitzaren aldeko apostua egin du, pobreen aldeko apostua"

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82



JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
☎ 76 14 96

Hezkuntza

Karrera aukeraketa

- Ikasleei karrera aukeratzeko laguntzeko testik egiten duzue?

- Bueno, lehen mailan hasten gara ikasleen inteligentzia gaitasunak aztertzen Amaia Ezenarro eta biok. Ikasle guztiei bi urtetan testak egiten zaizkie eta ondoren test horiek interpretatu egin behar dira, testek ematen dituzten emaitzak ez dira azken hitza. Ez diegu ikasleei etiketa bat jartzeko, test horiek ikaslea ikasketa munduan nola moldatu daitekeen esaten digute. Ondoren, informazio hori tutoreek ematen dituzten txostenekin eta beste informazio iturri batzuekin kontrastatu behar da.

- Zeintzuk dira informazio iturri horiek?

- Alde batetik, ikasleen interesak zer nolako arlo profesionalekin lotzen diren eta bestetik, errendimendu akademikoa. Azken batean, informazio gehien lortzen ahalegintzen gara eta argi izan behar da ez dagoela zuzen haxe ikasi behar duzu esaten duen testik. Ikasleak bere burua analizatu

eta horren arabera aukeraketa errealista bat egin beharko du, bakoitzak pentsatu behar du bere burua non ikusten duen ondoen. Adibidez, harreman sozialetarako gaitasunik ez badu, ez da lojiko izango erlazio publikoak ikastea. Beraien as-



AGURTZANE ERKIAGA
(Psikologoa)

moak errealistak izaten saiatu behar dira ikasleak eta guk aholkuak ematen dizkiegu.

- Eta behin karrera bat aukeratu ondoren,

jarrera hobea azaltzen badu ikasteko orduan?

- Letretako karreretan beharbada errezagoa izango da hori baina zientziazkoetan oinarri sendoa eraman behar da unibertsitatera. Eta zailtasun maila igotzen doan heinean, ikaslea maila horretara egokitu beharko da. Gainera, unibertsitatean sartzeko mugak egoten dira eta edozein karrera aukeratzeko ere batzuek besteko emaitza batzuk eskatzen zaizkie. Bestalde, Logse-rekin eguneroko lana lehen baino gehiago baloratzen da gaur egun eta lehen azterketa bezperan ikasteko ohitura bazegoen ere, orain ohitura txar horiek aldatu egin behar dira. Unibertsitatera joateko ezinbestekoa da hori, bestela ondorioak badakigu nolakoak izan daitezkeen eta.

- Beraz, testekin orientazio lana beste-rik ez da egiten...

- Ikasleen interesak eta gaitasunak aztertu eta aholkuak ematen zaizkie. Hor interpretazio bat dago eta zenbaterainoko fidagarritasuna dagoen? Ba, segun eta nola egiten den testa. Serio egiten bada, fidagarritasuna izango du eta bestela ez. Baina ikasleak ere bere aldetik interesa azaldu beharko du eta zer gustatzen zaion, adibidez, argi izan. Dena eginda ezin zaio eman.

"Testek ikaslea ikasketa munduan nola moldatu daitekeen esaten digute"



Unibertsitatera heltzeko selektibitatea gaintu behar da aurretik.

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

*Jesus
Mari***LAZKANO****F**amilian edo inguruan bazenuen margolaririk?

- Ez, baina eskolan bi irakaslek Señorita Maria Pilarrek eta bere senarrak, Don Luciok, eragina izan zutela uste dut, eskertu beharrean nago. Bestalde, niretzat oso garrantzitsua izan da gurasoen laguntza, batera eta bestera lagundu didate.

Simon Arrietaren eskolan ibilia zara.

- Arratsaldero joaten nintzen Zabalotegira 8 urterekin edo. Gero beste 3 bat urte egin genuen Seminarioan eta handik Verdury Hallera joan ginen.

- Bergararik Bilbora, Arte Ederrak egitera.

- Niretzat Bilbora joatea garrantzitsua izan zen. Nituen lagunak klasekoak ziren, eta argi genuen pinturan ahal genuen mailarik gorena lortu nahi genuela. 24 ordu pinturaren inguruan ematen genuen, eta horrela, azkenean mundu horretan sartzen zara. Urte gogorak eta alaiak izan ziren. Ez zen gaur bezala: Madrilerak erakusketetara joateko dedo egiten genuen, kanpinean lo egin...

- Arte Ederrez gain ikastarorik edo zerbait egin duzu?

- Ez, eta nire ustez garrantzitsuena ez da ikasketak batzuk edo beste egitea. Arte Ederrak ikasteak ez du esan nahi pintore ona izango zarenik, ezta ez egiteagatik pinto-

re ona ez zarenik izango. Egiteak duen alde ona da informazioa eskura duzula: oso liburutegi ona dago, lagunak eta inguruak zure kezka berak dituzte...

- Arte Ederretan zer erakusten duzu?

- Pintura, 5. mailan. Oso gustora nabil.


- Pintura erakutsi daiteke?

- Bai, horixe! Gauzak nola egin erakustez aparte, nola pentsatu behar den gero gauzak nola egin jakiteko. Asko dugu ikasteko.

- Zure pinturan urteen buruan bilakaera

izan da.

- Pintura ez da 100 metroko karrera bat, maratoia baizik. Poliki-poliki gertatu da dena, aldi bakoitzean %100 emanaz, bestela ezer ez da ateratzen.

- Paisaiak margotuz hasi zinen.**"Pintura ez da 100 metroko karrera bat, maratoia baizik"**

36 urteko margolaria Arteagan bizi da. Ez da akordatzen noiz hasi zen pintzelekin, baina behin Erregetan jasotako pintura erregaluaren kutzak zuen usainaz akordatzen da.

Harrezkero pinturaz inguratuta bizi da: klaseak, erakusketak, museoak... Estatuan ezagun eta handien artean dabilen unibertsitateko doktore eta irakasle bergarar honek nazioartean ere badu bere lekutxo.

- Bai, hasieran inpresionismoa ezagutzen duzu; gero fakultatera etorri eta artearen mundua beste gauza bat dela konturatzeko zara. Bat-batean galduta zaude, noraez: informazio ugari duzu, ez dakizu zer egin nahi duzun, errealitatea ez duzu ezagutzen, ez dakizu zein norabide hartu... burua orduko 1.000 Km.ra doa, margogintza, berriz, oso geldoa da. Duzun informazioa egituratu eta interesatzen zai-zuna aukeratu beharra duzu. Baina denbora pasa ahala heltzen zoaz, gauzak argitzen eta erabakiak hartzen. Nik garbi nuen nire bizitzaren ardatza pintura izango zela.

-Gero arkitekturarekin hasi zinen.

- Bilbora etortzeak eragin zuen hori. Paisaia arkitektura (lantegiak, ruinak...) sartzen hasi nintzen.

- 88an, New Yorken 6 hilabete...

- Ordurarteko nire lanarekin pixka bat nekatuta nongoen, beste zerbait nahi nuen eta New Yorkera joan nintzen; beste errealitate bat ikusi nuen eta paisaia alde batera laga eta hiriaren irudia sartzeari ekin nion, hiriak ziren protagonista. Ordukoak dira New York, Dallas, Chicago eta Vienako serieak.

- Zure lanean zergatik du horrelako garrantzia arkitekturak?



"Margolari ona izateko gauzak argi eduki eta insisititu egin behar da".

- Nire pintura intenporala izatea nahi dut, pinturak magia izan dezan interesgarria baita. Inoiz ez dut pertsonarik sartzen, sartuz gero jantzi egin behar dira denbora adierazteko, keinuak azaltzen dira... Arkitektura intenporala da, eta nire kuadroetan arkitekturak ordezkatzeko du gizakia.

- 93an hirietatik inbernaderoetara.

- Naturara bueltatzen hasi nintzen. Inbernaderoa naturaren eta gizonaren arteko puntua da.

- Orain zertan diharduzu?

-Azken erakusketak jardinei buruzkoak dira: material solidoekin (harririk, e.a.) lan egin beha-

rrean material organikoekin ari naiz. Orain arkitekturak baino garrantzi gehiago du naturak.

- Serie bati ekin aurretik datu bilketa egiten duzu?

- Beti. Adibidez hiriei buruzko seriea egiteko hiriak, hiriko kuadro eta postal zaharrak eta hiriko objektuak ikusten ditut, dokumentazioa lortu, argazkiak atera, arkitektura fakultateetara joan, e.a. Material guztia biltzen dut. Orain jardinak margotzeko Italiara joan nintzen: jardine interesgarriak ikusi, ezagutu, argazkiak atera, dokumentazioa lortu...

- Markoei garrantzi handia ematen diezu,

pintura jantzi egiten duzu.

- New Yorketik bueltatu ondoren, neu hasi nintzen markoak egiten. Nire pinturak ez dira markodun kuadroak, osotasun bat baizik. Markoak egiteko material desberdinak (metala, kobrea, e.a.), marrazkiak eta beste irudi batzuk sartzen ditut. Madrilen egin dudana jardinei buruzko azken erakusketan markogintza hori pixka bat baztertu eta bi irudi bat eginda aurkeztu ditut. Esaterako, jardine bat freskoan eta bestea akrilikokoan margotuta, prozedura zaharrak berreskuratu eta biak bat eginik, ondoan marrazki bat dutela.

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

- **Nola definituko zenuke zure estiloa?**

- Ez dakit. Esaten dute errealista dela, baina hori ez da garrantzitsua.

- **Leku askotan egin dituzu erakusketak.**

- Bergaran hasi nintzen, gero Bilbon, Madrilan, Chicagon, Suizan, Dallasen, Jakartan (Indonesia)... Datorren urtean Miamin eta Singapurren egingo ditut.

- **Pintore erreko-nozitua eta baloratua zara, estatuan ez ezik baita nazioartean ere.**

- Estatuan ezagutzen naute, baina nazioartean ez. Jende asko dago eta zaila da. Erakusketak egiten ari naiz, baina oso sakabanatuta: Suizan, Dallasen, Chicagon, Jakartan, e.a.

- **Nolako kritikak izan dituzu?**

- Normalean nonbait kritika ateratzea, kritika ona jasotzea da; izan ere, milaka erakusketa egoten dira han hemenka eta, zure erakusketaren aipamen edo kritika bat kale-ratzea oso seinale ona da. Nire lanari buruzkoak kaleratu dira, beraz, alde horretatik ez dut kejarik. Dallasen, esaterako, egunkari bakarra dago eta han ateratzea asko da.

- **Zuretzat pintura zerbait lortzeko helburua da ala bera da bere horretan helburu?**

- Biak. Lehenengo nik dudatan behar bat da, erre-alitatearen zati izateko; erre-alitatea ezagutzeko eta jasotzeko bide bat da. Gero bide horrek beste pertsonak erre-alitate hori edo ikusleak pintura horretan ikusten duen erre-alitatea ezagutarazteko balio baldin badu, askoz hobeto.

- **Margolari ona iza-**

teko berritzailea izan beharra dago ala beste batzuk egiten dutena hobeto egin behar da?

- Ez bata eta ez bestea.

Ezin da berritzaile izan, dena asmatuta dagoelako; eta besteak baino hobeto ere ez da egin behar, norbera izan behar da. Norbera izateko informatu, jakin egin behar da maila guztietan zer egiten den. Dena den, informazioa izatea ere ez da nahikoa, informazioa tragatu eta norberaren interesen arabera moldatu behar da.

- **Zein da sekretua?**

- Pintura ona dela kontutan hartuta, bi baldintza daude: zer nahi duzun argi edukitzea eta horretan insistitzea. Eta suerterik ez baduzu, insistitzen jarraitu, azkenean hori transmititu egiten baita. Gero etorriko da pinturaren inguruko zirkua: komunikabideak, erakundeak, e.a.

- **Zertan bereizten da pintura ona eta txarra?**

- Ona da norberak egin nahi duenarekin tensoa eta koherentea denean. Adibidez, baba gorriak onak izateko, ondo egosi behar dira, urdaiak bere puntu egon behar du... gero etorriko dira jatetxe bateko edo besteko gourmeteen iritzia. Pinturarekin gauza berbera gertatzen da: gutxieneko baldintzak onak izan behar dute; gusto kontua beste gauza bat da. Ez gustatzeak ez du esan nahi lan bat txarra denik. Niri gustatzen ez zaizkidan pintura asko badakit onak direla.

- **Kuadro batean bi marra egin eta 5 milioitan saltzen da.**

- Gauza bat da pintura

ona eta bestea finantzen mundua, oso desberdina da.

- **Askotan izenak balio du, izena saltzen da, ezta?**

- Hori jakin nahi ez dutenen errekurtoa da. Hasi marra horiek egiten, ea ateratzen zaizkizun. Gizartea hezi eta sentsibilizatu egin behar da.


- **Erakusketetara eta museoetara joaten zara?**

- Jatea beharrezkoa dudatan bezala, erakusketak eta museoak nire elikagaiak dira, nire mundua da. Orain, esaterako La Hayan dagoen Vermeren erakusketa ikusteko asmoa dut. Era guztietako erakusketak (argazkia,

performantzia, eskultura...) museoak, elizak, grabatuak... denetarik ikusten dut, oso indiskriminatua naiz. Zer gustatzen zaidan jakiteko dena ikusi behar dut, gainera fakultatean denetaz hitze-gin behar da, ikasleek nire asgnaturaz gain beste behar batzuk ere badituztelako.

- **Aurten Goyaren urtea da. Zer iruditzen zaizu?**

- Horrelako bultzada Goya ezagutzeko ona bada, ongi etorria izan bedi. Baina ez da egin behar bakarrik batekin eta noizean behin, baizik eta denekin eta beti. Horrelakotan dena haundikiro egiten da eta Goya ikusi bai,



"Irakasle oso gustora nabil, nire saltsan"

"Telebista aurrean jartzea baino nahiago dut kuadro bati begira egotea"

Margolari bat.

Orain Piero della Francesca, beharbada datorren urtean Tapias; aldakorra da.

Kalean bere kuadro bat topatuz gero?

Etxera eraman eta saloian jarriko nuke.

Lan bat?

Urbino Dukeen diptikoa, Francescarena.

Gustatzen ez zaizun pintore bat?

Picasso.

Eta gustatzen ez zaizun lana?

Asko daude gustatzen ez zaizkidanak, baina txarrak ez zaizkit buruan geratzen.

Eskultore bat?

Txillida.

Oteiza baino nahiago?

Bai, gainera Oteizak eskulturagintza 59an laga zuen.

Zenbat kuadro dituzu?

Dena kontrolatuta dut, bakoitza bere fitxekin-eta, baina ez ditut sekula kontatu.

Zure kuadririk gustokoena salduko zenuke?

Normalean nire gustokoena saltzen den

lehenengotarikoa da.

Kuadroak erregalaten dituzu?

Asko.

Nola sinatzen dituzu?

Lazkano.


Zer ez zenuke sekula margotuko?

Ezer ez, edozer gauza pintatuko nuke.

Kolore bat?

Berde vejiga.

Zein pertsona margotuko zenuke?



"Bergaran Usondon dagoen Libanoko zedroa margotuko nuke".

Ni neu, autoerretrotoa. Egiten ditut.

Urtarorik politena?

Margotzeko denak, bizitzeko udazkena.

Ikasleei ematen diezun gomendioa.

Inolako aurriritzirik ez izatea; sintzeroa izan eta norbera izatea; eta lan egitea, lan asko egitea.

Bergaran zer margotuko zenuke?

Jardinekin nabilenez, Usondon dagoen Libanoko zedroa.

Zer ez?

San Pedro.

Gustoko kuadro baten aurrean denbora asko pasatzen duzu?

Bai, eta beti zedozer berria topatzen diot. Telebista baino nahiago dut.

Albisteak jarraitzen dituzu?

Irrati eta egunkarien bidez. Telebista mediatizatuago dago, ez dizu albisteak ausnartzeko eta zalantzan jartzeko astirik eta benetako errealitatea ezagutzeko aukerarik ematen.

Subastaren batean parte hartu duzu?

Bai, baina inoiz ez dut erosi ezer.

Herri bat?

Atenas I. mendean eta Florentzia XV. mendean.

Zein pintore izango zinateke?

Leonardo da Vinci oso erakargarria da.

baina nola? Iladetan eta jende pilaren artean ikusten denez, irudi okerra jasotzeko arriskua dago.

- Guggenheimen aldeko zara?

- Bai, herriaren kulturarako eta jendea sentsibilitatean hezitzeko ona da, inbetsio ona da. Orain, diru hori ondo erabili behar da, hori da lortu behar dena.

- Baina kulturako beste arloetan murrizketak ekarri ei ditu.

- Ez, kulturak sekula ez duelako presupostu handia izan. Beste kontu bat da kulturari diru gehiago eman behar zaiola.

- Noiz margotzen duzu?

- Astean zehar, goize-tan, 8:30etatik 3retara edo, asteburuetan gutxia-

go. Arratsaldeetan pinturaren inguruko gauzak prestatu, e.a. Beste edozein langile bezala. Ez da jendeak uste duen bezala genio bati ideia, inspirazioa, etortzen zaiola eta orduan margotu behar duela. Gauzak ez dira bat-batean etortzen, lan asko egin behar da zerbait nahi bada.

- Gauean ideien bat etorriz gero ez zaiekitzen?

- Baita (barrez), eta estudioa jeisten naiz.

- Bergarako margolariekin harremanik baduzu?

- Gutxi. Herriak bi alde ditu: hasieran inguru ona izatea garrantzitsua da, eta hori Bergarak eskaintzen dizu. Baina bestetik, herrian geratzea oso

erosoa da: ez zara irtezen eta zure lana kritikatu eta auzitan jartzeko aukerarik ez duzu; eta mundu honetan aurrera egiteko, mugitu beharra dago, eta ez Bilbora edo Madrilera, baizik eta Istanbulera edo dena delakora. Nire ustez, Bergarakoak ez dira asko irtezen eta progresatzeko ez dute aukera handirik. Dena den, erakusketak egiten dituztenean eta ikusten ditut.

- Zuk kritika txarrik jaso duzu?

- Jakina! Baina kritikak ez dira bakarrik egunkari edo aldizkarietan ateratzen direnak. Beka bat ez ematea, lan baterako ez onartzea, dena da kritika.

- Non bizi zara?

- Arteagan. Niri gertatu zaidan gauzarik onene-

takoa Bergaran bizitzea izan denez, nire seme-alabak (Mikel 9 urte eta Irune, 5) ingurune egoki, natural eta euskaldunean haztea nahi dut eta Bilbok ez zigun horretarako aukerarik ematen.

- Seme-alabei margotzen erakusten diezu?

- Eurek eskatzen dute-nean.


- Orain baduzu lanik erakusgai?

-Jakartan inauguratu zen duela bi domeka, hilabetez edo egongo da. Udan Floridara joango naiz hilabeterako eta erakusketa izango dudala uste dut, udazkenean Madrilin jarriko dut, eta Gabonetan Bilbon.

- Zure ametsa?

- Beti pintatzeko zerbait izatea.

Lanpostuak sortzeko, prest egongo zinateke lano gutxiago egin eta soldata jeisteko?



Ion Marco
48 urte, langilea

Baietz uste dut. Hala ere nik bakarrik eginda ez dut uste interesgarria izango litzatekeenik. Neurri hori jende gehiagok hartuta hobe.



Javier Alfaro
32 urte, langilea

Bai, 6 lantegitan egon naiz eta uste dut ondo egongo litzatekeela. Lanpostu gehiago sortu eta soldatak jeistea ideia ona dela pentsatzen dut.



Esther Totorika
41 urte, langilea

Nik nahiago dut orain arte bezala jarraitu eta urte batzuetan soldatak izoztea, aurrezten den diru horrekin lanpostuak sortzeko.




Loli Conde
30 urte, langabetua

Neurri egokia dela iruditzen zait. Baina lanpostuak sortzen badira, beste edozertarako ez. Langabezia nahikoa dago eta hori jeisteko bada, primeran.



Maria Eugenia Iñarra
21 urte, ikaslea

Segun. Onena ordu gutxiago lan egin eta gehiago kobratzea izango litzateke, ezta? Baina niri ez dit inporta, lan gehiago egin eta gehiago kobratzeak.



Juan Jose Egibar
42 urte, langilea


Lehenbizi hori ondo zehaztu behar da, ez naiz enpresarioekin fidatzen eta. Dena langileen kontura egiten da hemen eta.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



Elkarrekin

Gutxitan izan dugu sindikatuok prentsaren ladetik ELA-LAB ekintza bateratua sortu zenetik jaso dugun bestelako arreta. Batasun honetan norbaitek ikusi nahi izan du Euskal Herria astintzen duen biolentziari buruzko eztabaidan hirugarren bidea. Ikuspegi polita, benetan atsegina, baina ez horregatik interpretazio zuzena.

ELA eta LABen arteko ekintzak egiaztatzen duena zera da: sindikalgintzak bere uretan barne murgiltzen duela zinez borroka horretan saiatzen den guztia. Fenomeno sindikalak bere interpretazio berezia behar du gizartean, beraz, hirugarren edo zazpigarren bidea izan daiteke, baina izen propioa du: sindikal bidea.

Beste polemika bat ELAk elkartasunik baduen edo ez LAB indarkeriaren mundu ingurutik ateratzeko. Ikuspegi desbideratua hau ere. Porruak Abisiniako basamortuan egiten ez diren bezalaxe, sindikalgintzak nekez botako ditu sustraiak borroka armatuaren eremuetan. Horregatik ez da izango ELA beste organizaziorik bideratuko duena, baizik eta LAB, bere dinamika sindikal propioa nagusitzen zaion neurrian, bake giroa aldarrikatuko duena. Gertatzen bada, hala izango da eta ez beste inola.

Bitartean, eta demokrata baldin bagara, onartu behar dugu sindikal gehiengo bat badela herri honetan, lan harremanen euskal esparrua eskatzen duena eta lantzeko prest dagoena, legez eta eskubidez erabakiak eta itunak gauzatzeko gai dena eta, noski, Maiatzaren Lehena elkarrekin ospatzeko ere bai.

Xabier LARRAÑAGA (ELA)



Euskal Herria eraikitzen

Euskal Herriko langileok eta gizarteak oro ezin dugu itxaron, botere ekonomikoaren morroi eta zerbitzari fidelak diren baskongadas eta Nafarroako administrazioek gure gizartean ematen diren ezberdintasuna eta injustizia egoera mozteko zerbait egin dezaten.

Bakarrik erakunde eta enpresariak eragiten duen ezberdintasun eta segurantzarik ezaren gehiketaren politika, gure narruan jasaten dugun langileok eman ditzakegu guk sortzen ditugun aberastasuna eta enpleguaren banaketa handiagoa lortzera eramango gaituzten urratsak.

Horretarako, gure lorpenetan aurrera egitea posible egin duen kontzientzia solidarioa berreskuratu beharra dago langile mugimenduan.

Langileontzat, gizartearen gehiengoarentzat, aurrerapena, bizitza baldintza duinak lortzearekin lotuta dago, eta hori, Euskal Herriko milaka pertsonaientzat, lanpostu duin baten ateak zabaltzean legoke.

LABen klase sindikatu denez, elkartasunezko kontzientzia euskal langileriaren artean zabaltzera behartuta gaudu, defenditzen dugun eraikuntza nazionalaren proiektua lortzera hurbilduko gaituen kontzientzia.

Euskal Herria eraikitze lan honetan kokatzen dugu ELAekin daramagun ekintza batasuna, herriaren gehiengoaren sendimendu nagusiarekin bat eginez eta askatasun ezaren bidetik garamatzen egungo marko juridiko politikolari, irtenbidea aurkitzeko ardurari aurre egiteko gai ez diren indar politikoei benetako lekioa emanez.

Jose Luis LOIDI (LAB)



ARETXABALETako

intsitutua



IKASKETAK:

- Batxilergo Orokorra (REM 1. zikloa).
- Batxilergo tekniko-industriala (REM 2. zikloa).
- **Heziketa tekniko profesionalak (F.P. 2).**
 - Automozioa.
- **Modulo profesionala - 3.**
 - Sistema automatiko programagarriak.

AURREINSKRIPZIOAK: Maiatzaren 2tik 17ra.

MATRIKULAZIO ARRUNTA: Uztailaren 1etik 8ra.

MATRIKULAZIO BEREZIA: Irailaren 2tik 11ra.

INFORMAZIOA ESKA EZAZU: ☎ 79 90 00 -79 79 43



■ **Bergarako Errolda egileak**

Argazkian agertzen diren bergararrek **Udal Errolda**ri buruzko datuak biltzeari ekin zioten atzo, osteguna. Udal Errolda 5 urtetik behin berritzen da baina hemendik aurrera urtez-urtez gaurkotuko da.

Aurten Donostiako **Urma** enpresak egingo du lan hori. Horretarako, 11 lagun kontratatu ditu eta hauek etxez etxe ibiliko dira maiatzaren 30era arte herritarrei eta etxebizitzeei buruzko datuak biltzen. Lana egin ahal izateko herritarren partaidetza eskatzen da.



■ **Xamatz eta Bedelkarren zozketa**

Erramu Zapatuan Xamatz dantza taldeak Bedelkarren laguntzaz antolatutako zozketaren sari banaketa egin zen aurreko ostegunean Kultur Etxean. **Ander Garitano** gaztetxoak izan zen irabazlea eta sari modura **bildotsa** eta **pare bat botila ardo** eskuratu zituen. Ardoa edaten hasteko gazteegia denez, beraren kontura bazkari ederra egin ahal izango dute Anderren familiartekoek. Argazkian Ander, **Mikel** bere aita, **Elsa Rodriguez** Bedelkarreko presidentea eta **Kristina Atxa** Xamatzeko ordezkariarekin. Zorionak!!

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroa 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

■ **Urrezko eztaiak**

Ramiro Lopez eta **Isabel Muruamendiaraz** bergararrek ezkontzako urrezko eztaiak ospatu zituzten larunbatean, apirilak 27.

Isabel eta Ramiro orain 50 urte ezkondu ziren San Pedro elizan eta larunbatean egun berezi hura gogoratu zuten familiartekoekin batera. San Antonion meza entzun ondoren, bazkaria izan zuten Angiozarko Beheko Tabernan. Bertan, besteak beste, Ramiro eta Isabelen 2 seme-alabak eta 4 bilobak elkartu ziren. Guztiek primeran igaro zuten eguna. Zorionak Isabel eta Ramirori!



Zertan dihardute ba?



Elsa Rodriguez Jakina dendakoa izango da Bedelkar Bergarako Dendarien Elkarteko presidentea datozen 2 urtetan. Aste Santuaren aurretik egindako Batzar Orokorrean Bedelkarrek Elsa Rodriguez presidentea eta Sebastian Imaz idazkaria izendatu zituen. Bedelkar 1993. urtean sortu zen eta ordutik Rafa Herran eta Pili Azkarate izan dira elkarteko presidentea eta idazkaria. Gaur egun 107 bazkide dira elkartean eta Elsaren hitzetan, *"gero eta gebiago elkartzen saiatzen ari gara. Horretan mentalizatu beharra dugu, elkarrekin gauza interesgarriak egin daitezkeelako"*.

■ **Gorren eskolak 25 urte**

Aurreko astean hasi ziren **Arans-Gi gorren eskolaren XXV. urteurrena** ospatzeko ekitaldiak. Asteazkenean Mariaren Lagundia, San Martin de Agirre ikastetxea, Aranzadi Ikastola eta Antzuolako Herri Eskolan gorren gaiei buruzko mural batzuk



jarri zituzten eta ostiral arratsaldean 5. eta 6. mailako ikasleek antolatutako jaialdia izan zen Mariaren Lagundiko aretoan. Datorren ostiralean, maiatzaren 10ean, Arans-Gi eskola barrutik ezagutzeko nahi duten guztientzat ihardunaldi bat izango da eta maiatzaren 19an bazkari-omenaldia Udal Biltegian, eguerdiko mezaren ostean. Bertan Arans-Giko sortzaile, irakasle edota ikasle izandakoak bilduko dira.

ZUBIAURRE aroztegia

Sarrerako eta barrurako atek, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Sor Ines Rodriguez

Ines Rodriguez Karitateko Alaba, Quintana de la Serenan (Badajoz) jaio zen. 1963an Antzuolara etorri zen eta 78tik Bergaran bizi da. Mizpirualde Egoitzako zaharrak zaintzen ditu, eta Osasun Pastoralta (etxez etxe gaisoak bisitatzea) eta Gartzela Pastoralta (presoei eta horien senitartekoei laguntzea) ere parte hartzen du.

MARIA GOMEZ

- Zer jasotzen duzu egoitzako zaharregandik?

- Ebanjelizatu egiten naute. Ematen diezuna jasotzeko zain daude eta maitasunez eskertzen dizute.

- Zergatik Karitateko Alaba?

- Betidanik gogoko izan dut behartsuei laguntzea.

- Gero eta erlijioso gutxiago dago.

- Lehen senide erlijioso bat izatea ohorea zen, egun gauzak aldatu egin dira, materialismoak zer esan handia du.

- Argelian misiolari egon zinen.

- Umeak zaintzen nituen: garbitu, hezi, jaten egokiro eman...

- Nola lortu daiteke pakea munduan?



“Astia izanez gero nire biografia idatzi, eta ordenadorea erabiltzen eta kitarra jotzen ikasiko nuke. Gozogintzan jardutea gustatzen zait, baina ez naiz gozozalea. Egunkarian iritzi artikuluak eta kulturako berriak irakutzen ditut”

- Gugandik hasita, berekoiak izateari utzita, eta pertsonak ontzat eta gaiztotzat hartzeari lagata.

- Gizarteko arazorik larriena?

- Euskal Herrian langabezia eta munduan gerrak.

- Beldurrik baduzu?

- Ez inori ezta ezeri ere.

- Umetan zer izan nahi zenuen helduaroan?

- Ilepaintzailea edo erizaina.

- Kirola gustatzen zaizu?

- Mendian ibiltzea. Gaztetan saskibaloian jolasten nuen.

- Irakurtzea gustoko duzu?

- Bai. Kulturei buruzko liburuak, El Quijote eta Miguel de Unamuno bezalako autoreak.

- Filmerik gogokoena?

- La mision eta Kramer contra Kramer.

- Ze musika entzuten duzu?

- Klasikoa. Benito Lertxundi eta Luis Mariano ere gustatzen zaizkit.

- Sukaldaritza gustatzen zaizu?

- Gozogintza gehien bat, baina ez naiz gozozalea.

- Gona ala prakak?

- Ondo jaztea da garrantzitsuena.

- Moja izateko ile motza eduki behar da?

- Ez, nireztat erosoagoa da.

- Astirik izango bazenu, zer egingo zenuke?

- Kitarra jotzen eta ordenadorea erabiltzen ikasi, nire biografia idatzi...

- Amets bat?

- Camerun herriari laguntzea.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

ETXEBIZITZA

Pisua salgai. 80 m2 eta 6 m2ko terraza. ☎ 76 03 75.

Pisua salgai Osintxun. Erdi amueblatuta, argitsua. ☎ 76 17 27/55 98 (gauzez).

Pisua salgai. 90 m2 eta terraza. ☎ 76 31 57 (gauzez).

Pisua salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/76 56 07.

Pisua salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

Laredon pisua alokatzen da uztailean. ☎ 79 52 80.

Pisua salgai Maduran. ☎ 76 45 03.

Garajea salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

Berriztutako **ganbara** San Pedron salgai. ☎ 76 24 05.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Pisua salgai herri erdian. ☎ 76 39 64 (21.00-23.00).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 44 84.

Pisua alokatzen da Zubietan. ☎ 76 47 28 (gauzez).

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 47 71.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 29 36.

DENETARIK

Kanpin denda familiarra salgai. ☎ 76 37 96.

Denda-remolkea salgai. ☎ 76 37 82.

Nikon 70210 "D" objetiboa salgai. B + W filteroa, parasol originala. Erabili gabe. ☎ 76 52 31 (Jesus, gauzez).

Golf-eko Wilson makilak salgai. ☎ 76 10 93/32 15 89.

Imar karro denda salgai. ☎ 76 59 56 (gauzez).

Urrezko pultsera bat aurkitu dut Matxiategi kalean. ☎ 76 41 28.

Kotxe kapota (Arrue marka) eta silla berria salgai. ☎ 76 27 60 (20-21.00).

Ezkontza eraztun bat agertu da Eroskin. Galdu duena bertatik pasa dadila.

Segamegadrive konsola salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

Nissan Vanette (SS-AK) salgai. ☎ 21 18 55.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 51 55.

Lancia Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

Montesa H7 Enduro motorra (250 cm3) salgai. 100.000 pta. ☎ 76 31 40.

Karabana (5 pertsonentzat) salgai. ☎ 79 18 60.

Comodore ordenagailua (Amiga) salgai. ☎ 76 56 13.

Casio poltsikoko telebista salgai. ☎ 76 56 13 (Markel).

Olivetti Copia 7005 fotokopiadora salgai. 55.000 pta.. ☎ 76 51 23 (gauzez).

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Errenta aitorenak egiten ditut. ☎ 76 34 95 (Ander).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

Klase partikularrak ematen dira. ☎ 76 04 65.

Klase partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

Ileapaindegian diplomadun neska batek lan egingo luke. ☎ 79 97 81.

Euskara klaseak hartuko nituzke, 3retatik 5etara. ☎ 76 58 73.

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 96 (Merche).

BBB, UBI eta unibertsitate mailako klase partikularrak. ☎ 76 35 37.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia. ☎ 76 61 17.

Ordenadorez pasatzen dira lanak. ☎ 76 27 59.

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 11 11.

**Cristina Garcíandia Mujika**

DERMATOLOGIA
BENEREOLOGIA
MEDIKUNTZA KIRURJIKOA

San Martin Osasundegia
Ramón María Lili, 2 (Ate nagusia)
Telefonoa: 76 59 39

ETXEBIZITZAK, GARAJEAK ETA LOKALAK ELGETAN

INFORMAZIOA:
Elgetako Udala
☎ **76 80 22**

Esarbide, S.A.
☎ **21 23 54**



**Lehenengo fasea bukatuta, bigarren fasea martxan Domingo Iturbe kalean.
BABES OFIZIALEKO LAGUNTZA GUZTIEKIN!!**

TXAKUR ILEPAINDEGI BERRIA

PEPE FERNANDEZ

BALDANA ALBAITARITZA-KLINIKAKO ALBAITARIA

HEMENDIK AURRERA BALDANA ALBAITARITZA-KLINIKAK ZERBITZU BERRI BAT ESKAINIKO DIE BERE BEZEROEI. ZER DA ZEHAZKI ESKAINIKO DIENA?

ORAIN, UDAN BATEZ ERE, TXAKUR-JABE ASKORI SORTZEN ZAIEN BEHAR BATI ERANTZUN NAHI DIOGU. BEROEKIN-ETA, JENDE ASKOK MOZTU NAHI IZATEN DIO ILEA TXA-

KURRARI, ETA GUK ERA GUZTETAKO ILE MOZKETAK EGINGO DITUGU. HORRETAZ GAIN, DESPARASITAZIO BAINUAK ERE ESKAINIKO DITUGU.

KONTAIGUZU APUR BAT NOIZ HASIKO ZARETEN, PREZIOAK, ETA ABAR...

BA, TXAKUR ARRAZAREN ETA ESKATUTAKO ZERBITZUAREN ARABERA, PREZIO DESBERDINAK IZANGO DIRA. HASI, BERRIZ, ASTEBURU HONETAN



HASIKO GARA ETA AURREZ TXANDA ESKATU BEHARKO DA. GURE TELEFONOA HAU DA: 76 27 97.

AMAITZEKO, HITZ EGIGUZU TXAKURRAK IDENTIFIKATZEKO MIKROTXIPAREN GAINEAN.

LEHENENGO-LEHENENGO GOGORATU BEHARRA DAGO HERRIKO TXAKUR GUZTIAK BEHARTUTA DAUDELA MIKROTXIPA ERAMATERA.

ONENA KLINIKARA ETORRI ETA EGOERA LEGALA KONPONTZEAZ GAIN, OSASUN-AZTERKETA OROKORRA EGITEA DA.



"Era guztietako ile mozketa eta desparasitazio-baimenak eskaintzen ditugu"

GOGORATU BEHARRA DAGO HERRIKO TXAKUR GUZTIAK BEHARTUTA DAUDELA MIKROTXIPA ERAMATERA.



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	46	18	85	30
2. BAR CANALEJAS	43	18	63	25
3. MADURA INDUSTRIAS GOL	35	18	67	40
4. MONGATXURRAK	34	18	76	36
5. OGIZUN	29	18	57	58
6. KABIA	25	17	44	47
7. ARLOTEAK	21	17	45	55
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	19	18	48	58
9. ORTZI	16	18	27	60
10. UFALA	10	18	45	84
11. OZAETA	4	18	42	94
12. BERGATRANS	0	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	47	18	115	53
2. A ZE FLAXA	44	20	89	54
3. PAGOMENDI	37	20	92	60
4. ARTUSAMAK	34	19	63	44
5. UVE BIKOITZA	31	19	66	64
6. NAIKARI HOOLIGANS	23	19	64	80
7. HALTZARI	21	20	47	84
8. KAYAK OS JARDINEIROS	20	20	80	92
9. AUTOBEREZI	19	20	64	71
10. ETXAGI	19	20	84	114
11. ERI	18	20	60	77
12. INDARGORRI	17	19	30	46

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	44	19	98	54
2. KIROLZALEAK	43	20	93	55
3. EZINLEIKE	36	19	86	53
4. LA JUVE	35	20	63	60
5. AMOZKIBAR	34	19	54	37
6. NEKROFIKOS	30	20	82	83
7. MOSKIS	26	20	59	81
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	25	20	59	69
9. EH BITERRAK	23	20	44	73
10. IGANDEKOAK	19	19	54	78
11. SHAKTALE	11	20	41	76
12. ARI ARI	10	20	71	90

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	43	18	90	38
2. GUADALEST	42	19	75	35
3. TXIPIRON	35	17	63	40
4. PJS	34	17	84	17
5. PATXARAN TEAM	29	18	66	54
6. OSINTXU	27	18	66	57
7. MATXAKATEGI	24	17	68	69
8. LABEGARAIETA	18	18	48	96
9. PATA NEGRA	17	18	51	100
10. ALDOKA MALDOKA	12	18	46	68
11. XURRUPAK	4	18	34	104

PROTAGONISTAK



ENRIQUE NIETO

Kayak Os Jardineiros-ekoa

"Arrasaten baloi onekin jokatzeko dira partiduetan"

Nola doa aurtengo denboraldia?

Gaizki, gure helburua lehen mailara igotzea zen, baina lesionatu asko izan ditugu, Iñaki, Garmendia eta Asier eta hori taldeak igarri egin du.

2. mailako talderik onenak?

Uste dut Jauja OH Zerezos doala lehenengo, baina niri, behintzat, A Ze Flaxa taldea gehiago gustatzen zait.

Antolaketa buruz ezer esateko baduzu?

Nahikoa meritu dute hau antolatzen dutenak. Halere, gauzak hobetu daitezke eta komenigarria izango litzateke arbitraiak egiteko talde finko bat izatea.

Entrenatzailea izanik, taktikoki zela ikusten dituzu taldeak?

5 jokalarri gehiegi dira eta guztiok bata besteari gainean jokatzeko dugu eta horrela zaila da gauza politak ikustea. Espektakulo gehiago izateko, 4 jokalarirekin jokatu beharko genuke, guztiok irabaziko genuke horrela.

KOMENTARIOA

Mailaz igo eta jeitsiko diren taldeen inguruan asko hitz egiten ari da azkenaldian. Txapelketa azkenera heldu da eta sailkapeneta goi eta behaldea daudenak urduri samar jarriak dira. Lehen mailako azkena bigarren mailara jeitsiko da eta beste bik promozioa jokatuko dute bigarren mailako 3. eta 4. arekin. Bigarren mailan, berriz, bi lehenengoak lehen mailara zuzenean igoko dira eta 3. eta 4. postuan sailkatzen direnak igoera promozioa jokatuko dute. Azken biak zuzenean jeitsiko dira eta beste bik jeisteko promozioa jokatuko dute. Hirugarren mailan, lehen hiru postuetan sailkatzen direnak zuzenean igoko dira eta hurrengo biek promozioa jokatuko dute, azkenengo biak zuzenean jeitsiko dira eta beste biek promozioa jokatuko dute 4. mailako 4. eta 5. sailkatzen direnena kontra. 4. mailako 3 lehenengoak zuzenean igoko dira eta hurrengo biek igotzeko promozioa jokatuko dute.

EMAITZAK

1. MAILA

BILDURBAREK OPEL/LAM-OGIZUN	3 - 4
ORTZI-MADURA INDUSTRIAS GOL	0 - 9
BAR CANALEJAS-ARLOTEAK	5 - 4
ERROTAGAIN-MONGATXURRA	4 - 1
KABIA-ORTZI	4 - 1
OZAETA-UFALA	2 - 6

2. MAILA

AUTOBEREZI-NAIKARI HOOLIGANS	2 - 2
HALTZARI-ARTUSAMAK	2 - 5
ETXAGI-PAGOMENDI	2 - 1
KAYAK OS JARDINEIROS-INDARGORRI	2 - 2
AUTOBEREZI-JAUJA OH ZEREZOS	2 - 3
HALTZARI-A ZE FLAXA	4 - 3
UVE BIKOITZA-NAIKARI HOOLIGANS	15 - 4
ERI-INDARGORRI	3 - 3
KAYAK OS JARDINEIROS-PAGOMENDI	4 - 12

3. MAILA

SHAKTALE-IGANDEKOAK	3 - 6
EH BITERRAK-ARI ARI	5 - 4
SOROPOTROAK-AMOZKIBAR	3 - 3
NEKROFIKOS-MOSKIS	7 - 5
LA JUVE-CONSTRUCCIONES BERGARA	3 - 1

4. MAILA

XURRUPAK-GUADALEST	1 - 3
--------------------	-------

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Jauja OH Zerezos-Indargorri • Kabia
10:00: Kabia-Ogizun • Indargorri
11:00: Kirolzaleak-Soropotroak • Ogizun

LARUNBATEAN KANPOAN

09:00: Labegaraieta-Matxakategi • PJS
10:00: Xurrupek-PJS • Matxakategi
11:00: Patxaran Team-Aldoka • Xurrupek

IGANDEAN BARRUAN

09:00: PJS-Txipiron • Shaktale
10:00: EH Biterrak-Shaktale • Txipiron
11:00: Amozkibar-Moskis • EH Biterrak
18:00: Orzi-Mongatxura • Bildurbarek
19:00: Bildurbarek Opel/Lam-Ozaeta • Orzi
20:00: Bar Canalejas-Kabia • Ozaeta

IGANDEAN KANPOAN

09:00: Iganekoak-C. Bergara • Autoberezi
10:00: Kayak OJ-Autoberezi • Iganekoak
11:00: Artusamak-Naikari H. • Kayak OJ
16:00: Osintxu-Pata Negra • Pagomendi
17:00: Eri-Pagomendi • Osintxu
18:00: Uve Bikoitza-Jauja OH Zerezos • Eri

T XINPARTAK

Nesken futbitoko finala igandean

Emakumezkoen Futbito Txapelketako finala igande arratsaldean jokatuko da. 16:00retan 3. eta 4. posturako partidua jokatuko dute Guk eta Blue Star taldeek; 17:00etan, berriz, finala Potzu Ta Zapaburuak eta Almondigak-ek.

Igerilariak Tarbesera

Eli Alberdi, Amaia Lazpiur, Eider Balzategi, Eneritz Muguruza, Agurtzane Crespo eta Antxon Maiztegi, Bergara Igeri Elkartekoak, Tarbesen (Frantzia) jokatuko den igeri txapelketan izango dira asteburu honetan.

Ipintzako Futbol Txapelketa

Ipintzako Futbol Txapelketan parte hartu nahi duten taldeek maiatzaren 21eko 19:00ak baino lehen BKEko bulegoko buzoian sobre bat laga beharko dute. Jokalarien zerrenda (gutxienez 14 eta gehienez 21), delegatuaren izena eta taldearen kamisetaren kolorea adierazi beharko dituzte. Taldeetako delegatuek bilera egingo dute maiatzaren 23an 19:00etan Ipintzan eta talde bakoitzeko 10.000 pzta. ordaindu beharko dute. Txapelketa 29an hasiko da.

Pelota txapelketa federatu barik dauden zaletuentzat

Asteazkenean hasi zen pelotari afizionatuentzako "Villa de Bergara" txapelketa eta lehen jardunaldian Muruamendiaraz eta Rayk 22 eta 18 irabazi zieten Tirapu eta Goñiri. Apezetxea eta De Luzek, berriz, 22 eta 12, Yañiz eta Auxkini. Txapelketan afizionatu mailako 8 bikoterik onenetarikoek hartuko dute parte eta datorren asteartean 19:30etan beste partidu bat jokatuko da. Txapelketaren irabazleek Pentekoste Torneoa jokatuko dute Udal Pilotalekura joango diren ikusleek botazioz aukeratutako hiru atzelari eta aurrelari onenekin batera.

Bestalde, Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta datorren astelehenetik ostiralera bitartean eskuz binakako txapelketa jokatuko da pelotari federatu gabekoentzat. Izena astelehena baino lehen Kirol Zerbitzuan eman beharko da eta txapelketa Zabalotegiko frontoian jokatuko da 4 t'erdia barruan eta finala, berriz, Udal Pilotalekuan.



Asteartean aurkeztu zen "Villa de Bergara" txapelketa.

Astelehenean goizeko 9:15etatik arratsaldeko 15:45tara, berriz, "Euskal Pilota Jokoa" diaporama eskainiko da Novedades aretoan, goizez eskoletako ikasleentzat eta arratsaldez herritar ororentzat. Ostiralean 16:30etan Etxaniz eta Zezeagag BKEko infantilekin batera partidu bat jokatuko dute.

Astelehenean goizeko 9:15etatik arratsaldeko 15:45tara, berriz, "Euskal Pilota Jokoa" diaporama eskainiko da Novedades aretoan, goizez eskoletako ikasleentzat eta arratsaldez herritar ororentzat. Ostiralean 16:30etan Etxaniz eta Zezeagag BKEko infantilekin batera partidu bat jokatuko dute.

UDALAK HERRIKO KIROL TALDEEI 96an EMANGO DIZKIEN DIRULAGUNTZAK

ATLETIKO ZALEAK	344.816
BADMINTON ELKARTEA	99.322
BETI-BUSTI TALDEA	246.430
BERGARA KIROL ELKARTEA	2.481.176
IGERI ELKARTEA	646.530
KARATE TALDEA 1	98.384
KARATE TALDEA 2	28.110
LAGUNAK ARETO FUTBOLA	149.920
LOKATZA ZIKLISMO TALDEA	582.814
ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKOA	384.170
XAKE TALDEA	724.300
POL-POL MENDIZALE TALDEA	540.648
GUZTIRA	6.400.000

Ondoan daukauen taulan

adierazten diren diru kopuruen erdia jaso dute kirol elkarteek. Falta den beste erdia abenduan jasoko dute, azaroaren 30a baino lehen urtean zehar egindako jardueren txostena Kirol Zerbitzuan aurkeztu ondoren. Edozelan ere, diru kopuru horien barruan ez dira sartzen goi mailako kirolariak jasotzen dutena eta BKEko Preferente mailako taldeak jasotzen duen diru kopurua ere ez dago sartuta. Kirol taldeek Udaletik dirulaguntza jaso ahal izateko puntuaketa baremo bat aplikatzen da, baina datorren urterako subentzio sistema hori aldatu egin daiteke. Izan ere, kirol elkarte guztiak ados daude sitema aldatzeko.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Zestoa**

Preferentea.
Ilgandea, 17:00. Agorrosin.

◆ **Bergara-Urola**

Lehen erregionala.
Larunbata, 17:15. Ipintza.

◆ **Bergara-Beti Ona**

Lehen mailako kadeteak.
Ilgandea, 11:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Ilintxa**

2. mailako kadeteak.
Ilgandea, 10:00. Ipintza.

◆ **Bergara-Gure Txokoa**

Emakumezkoak.
Larunbata, 15:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

◆ **Bergara-Donibane**

Senior mutilak.
Larunbata, 19:00.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Jauja**

Jubenil mutilak.
Ilgandea, 12:15.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Arrate Txiki**

Kadete mutilak.
Larunbata, 17:45.
Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ **Bergara-Arrasate**

Senior mutilak.
Larunbata, 16:15.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Lazkao**

Junior mutilak.
Larunbata, 18:30.
Mariaren Lagundia.

PALA TXAPELKETA

Pala Txapelketako partiduak.
Larunbata, 14:00.
Osintxuko frontoia.

FRONTENISA

Frontenis partiduak.
Larunbata, 09:00.
Zabalotegiko frontoia.

Nuria Rodriguez

Bergararrei aerobica irakasten

Nuria Rodriguez eibartarra, Kirol Zerbitzuak antolatzen duen aerobic ikastaroetako irakaslea da. Irailetik ekainera bitartean eta uztailen jo ta ke aritzen da aerobic klaseak ematen institutuko gimnasioan.

- Zela hasi zinen aerobic egiten?

- Hasieran klaseak hartzen nituen eta asko gustatzen zitzaidan. Ia egunero joaten nintzen gimnasia eta azkenean, irakasle moduan hastea erabaki nuen.

- Zergatik aukeratu duzu aerobica eta ez beste kirol bat?

- Kirola musikarekin egiten dugu eta koordinazioa asko lantzen dugu. Horretaz gain, kirol polita da. Kanpotik dantza itxura izan dezake, baina ez du zerikusi handiegirik. Hasieran 10 minutu-edo beroketa egiten pasatzen dugu eta gero 20-25 minutu bihotza lantzen pasatzen dugu. Era berean, koordinazioa lantzea ere oso garrantzitsua da.

- Musika garrantzitsua izango da, ez?

- Bai, erritmoa markatzen du eta edozein musikak ez du balio. Azkarra izan behar du eta minutuko 150 golpe inguru izan behar ditu. Normalean "bakalao" musika erabiltzen dugu.

- Zer jende mota etortzen da ikastarotara?

- 16 urtetik 45 urtera bitarteko emakumeak etortzen dira. Adin muga-

rik ez du, halere 50 urtetik gorakoei erritmo motelagoa jartzen diegu. Hasieran, jendea koordinazio faltarekin etortzen da eta poliki-poliki hobetzen goaz. Arazo gehienak giroekin eta direkzio aldaketekin izaten ditugu, baina azkenean ikasten da.

- Aerobic-ean gauza asko aldatzen ari dira?

- Bai, eta gauza berriak ikasteko urtean zehar Madril eta Bartzelonan egiten diren ikastarotara joan eta beti gauza berriak ikasteko prest izan behar gara. Azkenaldian, pesak eta goma elastikoak asko erabiltzen dira aerobic-ean.

- Aerobic txapelketan parte hartzen duzu?

- Bai, aurtun Donostian jokatzeko den Aerobithonean izan naiz eta bukatzea lortu nuen. Guztira 3 ordu eta laurden izan nintzen aerobica gelditu barik egiten eta azkenean bizkar eta hanketatik oso nekatuta bukatu nuen. Halere, astean zehar, 12 bat ordu sartuko ditut aerobica egiten.

- Zergatik ez datoz mutilak aerobic egitera?

- Nesken kirola dela dute buruan sartuta, baina bat hasiko balitz beste guztiak atzetik etorriko lirakeke.



"Mutilek aerobica nesken kirola dela uste dute".

"Kanpotik dantza itxura izan dezake, baina ez du zerikusi handiegirik"



Gorla iturriaren inaugurazioa

Aste honetako argazkia Gorla iturria inauguratu zeneko egunekoa duzue. Pol-Pol Mendizale Taldeko lagunek egin zuten iturria Gorlatik Iru-Bide elkartera bidean eta inaugurazioa 1943. urteko udan egin zen.

Argazkian agertzen den neska koadrila igandero joaten omen zen Gorlara eta Otaba egunean ere Elosura joateko ohitura zeukaten. Egun bero hartan, mendian gora izerdiak bota ondoren, eskertuko zuten bai iturriak emandako ur freskoa. Felix Iñarra Pol-Poleko lehen presidenteari tokatu zitzaion neskei ura zerbitzeko ohorea. Horra hor argazkian agertzen diren izenak. Ezkerretik eskumara:

Goian: Marisabel Okina, Florita Izuskiza, Maria Pilar Urzelai, Arantza Arana, Maritxu Berroya, Pastora Otadui, Mari Cruz Urzelai, Lucia Goikoerrotea eta honen semea, Justo Ezpeleta.

Behean: Jose Maria Arana, Felix Iñarra, Esperanza izeneko bat, Carmen Biziola, Emili Egiluz eta Luis Bikuña.

Argazkia: Arantza Arana

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ

IGANDETAN
ZABALIKI!!

MIGUEL ALTUNA eta IPINTZA institutuek, Bergarako Irakaskuntza Ertainetako eta Lanbide Heziketako institutu publikoek, gure herriari luzatzen diote eskaintza bateratu hau:

■ IPINTZA INSTITUTUA

- BBB 1. ETA 2. MAILA.
- IEE 1. MAILA.
- LOGSE BATXILERGOAK
 - Natur eta Osasun Zientziak 1. eta 2. maila.
 - Giza eta Gizarte Zientziak 1. eta 2. maila.



**GURE
ESKANTZAREN
EZAUGARRIAK:**

**KALITATEZKO
IRAKASKUNTZA**

GIZA MATERIAL BALIABIDEZ
OSATUA.

BATERATUA

DENON LANAREKIN EGINA.

**INTEGRALA ETA
INTEGRATZAILEA**

PERTSONA BERE
OSOTASUNEAN HEZI ETA
GIZARTEAN INTEGRATZEN
DUENA.

EUSKALDUNA

B, D EREDUAK.

■ MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA


- IEE 2. MAILA
- LH II
 - Mekanika 3. maila.
 - Elektrizitatea 3. maila.
- ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOA
 - Administrazio eta Gestio Laguntzailea.
- LOGSE BATXILERGOAK
 - Teknologikoa 1. eta 2. maila.
 - Humanistikoa 1. eta 2. maila.
- III. MILAKO MODULUAK
 - Enpresen Administrazioa eta Gsetioa.
 - Fabrikazio Mekanikoa.
 - Sistema Automatiko programagarriak.
 - Makina eta sistema automatizatuen mekanizatua.

HIZKUNTZ EREDUAK: A, B eta D.



■ MIGUEL ALTUNA (BERRIA)

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
 - 1. eta 2. maila.



HELBIDEAK:

**MIGUEL ALTUNA
INSTITUTUA**

IBARGARAI, 1

☎ 76 24 91-76 38 40

IPINTZA INSTITUTUA

BONI LASKURAIN, 19

☎ 76 31 42-76 31 43

AURREMATRIKULA: Maiatzaren 2tik 17ra • ORDUTEGIA: 09:00 - 14:00

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena **ETXEMOBEL**en. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!